BETI GAZTE

ALDIZKARIA

BAZKIDEEI ZUZENDUTAKO SEIHILEROKO ALDIZKARIA

Urtean bitan bidaliko den eta klubak egiten duenari buruzko informazioa zabaltzen duen aldizkaria duzue hau. WhatsApp bidez jasoko da, era digitalean. Herriko hainbat establezimendutan ere aurkitu ahal izanen duzue paperezko formatuan. Irakurri eta informatua egon zaitez, kontu interesgarriak agertuko dira eta!

BETI GAZTE 3. MAILARA!

Gizonezko helduen futbol taldeak 3. mailara salto egitea lortu du. Ohorezko Erregional mailan ikaragarrizko 2020-21 denboraldia egin ondotik, Lesaka herriarentzat historikoa izanen den garaipena lortu dute gazteek.

ELKARRIZKETATUA: JOSE LUIS SUNSUNDEGUI, LEHENDAKARI OHIA

ARGAZKILARITZA TALDE BERRIA!



PUNTXAS, ELKARTEAREN BABESLEA

Puntxas gasolindegia izanen da datorren denboraldietan futbol talde guzien ekipazioan agertuko den izena.

Bertako nagusia den Fernando Artiedaren hitz batzuk jaso ditugu.

2021EKO IRAILA • 002 ZENBAKIA • LESAKA

PUNTXAS, ELKARTEAREN BABESLEA

FERNANDO ARTIEDA PUNTXAS ZERBITZUGUNEKO NAGUSIAREKIN ELKARTU GARA GAIARI BURUZ SOLASEAN ARITZEKO.

Aurtengoan, Puntxas enpresa da elkartearen babesle nagusia eta egindako ekarpen handiari esker futbol talde guzien kamisetak berritu ahal izan ditugu, baita Mastegiko markagailu elektroniko berria erosi ere. Honi buruz aritzeko Fernando Artiedarekin solasean aritu gara.

Artieda Puntxas Zerbitzuguneko nagusia den beratarra dugu, herri bizitza sustatzen duena eta bertako elkarteen jarraitzailea dena. Bere hitzetan: "**Gure Txokoa eta Beti Gazte taldeetako bazkide eta forofo sutsua**" da.

Gure elkarteari dion estima jakinarazi digu Artiedak: "**hainbertze pertsonen inplikazioa eta elkarteak duen jarraikortasuna miresten dut, egindako lana handia da eta konpromisoa zer den ongi dakizue**". Gure kirol taldeei erreferentzia eginez, "**Beti Gazte kategoria guzietan beti hagitz lehiakorra izan**" dela onartu digu eta irri artean, Lesakarrok hori ongi ezaguturik, erortzen utzi du "**batzuetan fanfarroi xamarrak izateko baimena hartzen**" dugula.

Beratarra izanik, lesakarra dugun elkartea babestea nola bururatu zaion galdetu diogunean irri artean "**beratarroi zerbait eskertzeko**" aukera ona bezala ikusi duela aitortu digu. Horrez gain, "**Beti Gazte bezalako elkarteak borondatezko esfortzu eta dedikazio handiaz mantentzen**" direla azpimarratu nahi izan digu eta berari "**horrelako lanak aintzat hartzea eta saritzea beti gustatu**" izan zaiola kontatu digu.

Orain arte gure klubarekin izan duen lotura bere alaba eta biek "**jokalariak izanagatik**" etorritakoa da. Gure Txokoarenganako sentimendua galdu gabe, orain Beti Gazterenganako "**hurbiltasun gehiago nabaritzen**" du eta kontent azaldu da hori horrela izanagatik.

Gure eskerrik beroenak helarazi dizkiogu Fernando Artiedari emandako laguntzagatik. Nahiz eta berak faboritismorik gabe "**bazkide arrunt baten tratua**" izan nahi duela azpimarratu digun, elkarte eta bazkideen aldetik "**batzuetan horrela izan ez**" dela oroitarazi digu. Seguruenik, denbora batez hala izanen dela argitu diogu, batez ere, datorren urteetan babesle izateko gogoak irauten dion bitartean 😜 Horrela bukatu dugu elkarrizketa: "**Klubean espezialistak zarete eskerrak ematen eta horrela sentitu dut. Eskerrik asko!**".

PUNTXAS

BETI GAZTE 3. MAILARA!

GEZURRA BADIRUDI ERE, BORONDATEZKO LANAZ ETA ILUSIOZ BIZIRAUTEN DUEN GURE ELKARTE TTIKIAK, KIROL NAGUSIAN NABARMENTZEA LORTU DU, LIGA NAZIONALA DEN 3. MAILARA SALTO EGINEZ

1940az geroztik, hainbat eta hainbat maila eta txapelketetan parte hartu dugu Beti Gaztekook futbolean. Lesakako eta inguruko neska-mutilei kirolean hasi eta irakasteko asmoz, borondate osoz lanean aritzen diren entrenatzaileek formaturiko harrobi polita dugu, Nafarroa eta Gipuzkoako liga ezberdinetan jokatzen dutenak. Batzuetan okerxeago, eta bertze batzuetan aski ongi, parte hartu izandako txapelketetan paper polita egiten saiatzen gara.

2020-21 denboraldia ez da erraza izan Beti Gazte osatzen dugun guztientzat. COVID neurriak direla eta elkartearen martxa erabat aldatu da eta bazkide dezenteren elkarlana behar izan dugu neurri hauek aitzinera eraman ahal izateko. Horrez gain, txapelketa batzuk bertan behera gelditu ziren eta bertze batzuk, itxiera perimetralaren kausaz, kolokan. Gizonezkoen talde nagusia, hain zuzen ere, lehiaketatik kanpo gelditu zen hasiera batean Gipuzkoara pasatzea galarazita zegoelako.

Nafarroako Kirol Institutuarekin eta Nafarroako Gobernuko Kirol eta Kultura Sailarekin borrokatu ondoren, guretzako muga irekitzea lortu genuen. Baimena lortzeak emandako denbora luzearen ondorioz, hirugarren mailara igotzeko aukerak zituen Hernaniren aurkako partida atzeratu behar izan zen.

Mugikortasunaren oztopoa gainditu ondoren, albiste onak nagusitu ziren. Kanporaketa fasean Aretxabaletaren aurka 2-0 galdu bagenuen ere, itzuliko partidan zalez beterik zegoen Mastegi indartsuaren laguntzaz, gure mutilek markagailuari buelta ematea lortu zuten. 3-0 irabazi eta finalerako bidea ireki zuten partida historiko batean. Ordurako ilusio eta emozioek betetzen zituzten Lesakako kaleak.

Eibar Urko – Beti Gazte finala Beasaingo Loinaz zelaian jokatu zen. Nahiz eta partidua galdu, Joseba Rotetak zuzenduriko taldeak ikaragarrizko kalitatea erakutsi zuen zelaian eta aukeraz beteriko ikuskizuna eskaini ziguten lesakarroi. Zaleen babes handia izan zuen taldeak, 20 bazkide sartu baitziren zelai barrura eta sartu ezin izan zuten dozenaka zaleek Loinaz futbol zelaiko hesietatik ikusi zuten partidua. Horrez gain, onlineko transmisioari esker, Lesakako etxeetan, ostatuetan eta Harriondoan emandako emozioz beteriko proiekzioan ehunaka jarraitzailek defendatu genituen zuri-berde koloreak. Ezin izan genuen kopa handia irabazi, baina bai, ordea, iaz ere igotzeko punttuan egon zen aurkari gogor baten errespetua, zeinari 4 gol sartzeko gai izan ziren gure jokalariak, txartel gorri baten ostean denbora luzez bat gutxiagorekin jokatu izatearen merituarekin.

Beasainera joandako autobusak herrira bueltatu zirenean, ospakizuna ezin hobea izan zen. Herri guzia elkarrekin, ttikienetik helduenera, taldearekin iraulita. Bandera berdez eta bufandaz jauntzitako Albisturreko korridoretik pasa eta Beti Gazteko ikurra Onin errekan dantzatu ondotik, elkartetik Manolo Arozenaren bertsoak eta Roteta, Pilloti eta Oierren solasak aditu genituen. Bukatzeko, nola ez, bazkari ederra izan genuen.

Dagoeneko 2021-2022 denboraldian murgildurik gaude gure elkarte ttiki eta amateurretik futbolean profesionalak diren elkarteei aurre eginez. Ez daitezela fidatu, 20 aldiz ttikiagoa den herri baten gibeletik gelditu nahi ez badute.

ETA HAU ETA HORI ETA HURA, BETI GAZTE GORA!

FUTBOLA

2021-22 denboraldiko talde gehienak martxan!

EMAKUMEZKOEN OHOREZKO ERREGIONALA

Bigarren urtez jarraian ariko da kategoria honetan emakumezkoen talde nagusia. Jokalari kopurua juxtu samarra badute ere, maila oneko taldea da eta lehen bi partiduak irabaziz hasi dute denboraldia. Bergara izanen da hurrengo aurkaria, adi ibili daitezela Zikiro eta Ainarak zuzenduriko nesken kalitatearekin!

JUBENILEN OHOREZKO MAILA

Gizonezko talde nagusiaren gibeletik datozen gazteek ere itxura polita erakusten dute zelaian. Orain arte aritutako partida guztiak irabazirik, lehenengoak doaz sailkapenean Miguel eta Bertizen mutilak. Animo gazteak!

INFANTIL, ALEBIN, BENJAMIN ETA AURRE-BENJAMIN

Gure futbolari gazteenei ere ailegatu zaie futbolean aritzeko ordua. Datozen asteetan hasiko dira Mastegin entrenatzen eta aintzinago lehiatzen.

GIZONEZKOEN LEHENENGO ERREGIONAL MAILA

Denboraldi honetan estreineko dugun taldeari marka guztiak hausteko gogoz dagoela antzematen zaio. Denboraldi-aurreko lagunartekoan Gure Txokoari irabazi ondotik, Mattin Irazoki eta Orujok kudeatzen dituzten mutilek ongi hasi dute liga, golez beteriko bi jardunaldietan 4 puntu lortu baitituzte.

EMAKUMEZKO KADETE-INFANTIL MAILA

Koldoren gidaritzapean ezin hobe hasi dute denboraldia Nafarroan aritzen diren gure neskek, lehendabiziko jardunaldian deskantsua izan baitute! Aupa koadrila! Ongi pasa!

KADETE LEHEN MAILA

Saulek kudeatutako mutilek ere ekin diote 2021-22 denboraldiari. Talde giro ona dutela erakusten dute eta kiroltasunez aritzen dira zelaian. Disfrutatu ekipo!

SOKATIRA

2021. urtean sartu garenetik, itzeleko arrakasta izan dute gure sokatira taldeek. Parte hartu duten txapelketetan lan fina egin dute eta txapel ugari ekarri dute etxera. Euskal Herriko azken txapelketan, hain zuzen, ikaragarrizko erakustaldia eskaini zuten txapel guztiak eskuratzeko punttuan egon baitziren, baten faltan: talde mistoarena.

Dagoeneko, aurretik dituzten txapelketei begira ari dira lanean. Bertzeak bertze 2022an Holandan ospatuko den sokatirako goma modalitateko mundialean parte hartzea dute helburu.

GIZONEZKOEN TALDEA

2021eko Euskal Herriko txapelduna izan genuen gizonezkoen taldea, aurkeztutako lau modalitateetan irabazi baitzuten. Nafarroako 4x4 txapelketan berriz, jardunaldi bat Lesakan ospatu zena, 300kg-tan txapela lortu zuten eta 320kg-tan bigarren postua. Aupa mutilak!

TALDE MISTOA

Martxoan antolatutako Euskadiko txapelketan parte hartu zuen goma-gainean maila polita erakutsiz. Lehen postua eskuratu ez bazuen ere, txapeldunorde izan zen. Apiril eta maiatzean jokatu zen Nafarroako 4x4 txapelketan bi talde misto aurkeztu zituen Beti Gaztek. A-k txapela lortu zuen eta B hirugarren postuan gelditu zen.

EMAKUMEZKOEN TALDEA

Hauek ere erakustaldi ederra eman zuten Euskal Herriko txapelketan, hasiberriak izanik maila guztietan irabazi baitzuten. Ez hori bakarrik, Nafarroako txapelketan lehiatu ziren bi mailatan ere txapeldun izan ziren gure neskak: 235kg eta 255kg. Aupa zuek!

BG LASTERKA

MENDI LASTERKETA

Martxoaren 6rako antolatua zegoen mendi irteera bertan-behera gelditu zen COVID neurriek sortutako arazoen ondorioz.

ZUBIGAINEKO KROSA

2021. urtea akabatu aintzinetik, III. Zubigaineko Kros herritarra antolatzea da helburua. Aurrekoetan bezala, herritik barrena ibiliko den eta hainbat zubi gurutzatuko dituen ibilbidea izanen dute maila ezberdinetako lasterketek.

MENDIA

HILDAKO MENDIZALEEN OROIMENEZ AGIÑARA MENDI IRTEERA

Ekainaren 27an, igandea, urtero burutzen den hildakoen omenezko Agiñako mendi irteera egin zen.

PIRINIOTARA MENDI IRTEERA

COVID aferak izan zirela eta, bertan behera gelditu zen uztailerako aurreikusia zen aurtengo irteera.

HAUR, GAZTETXO ETA GURASOENTZAKO MENDI IRTEERAK

Kurtsoan zehar, hilabetean behin, larunbat goizetan familientzako mendi irteerak antolatzeari ekin dio Beti Gaztek. Bi ibilbide izaten dira, luzeera eta zailtasun ezberdinekoak, maila guztientzako mendizaleei egokitzeko asmoz. Parte hartu hurrengoetan!

TXIRRINDULARITZA

SALVADOR YANCI MARTXA ZIKLOTURISTA

Maiatzaren 9rako aurreikusia genuen txirrindularien martxa bertan-behera utzi behar izan genuen COVID neurrien ondorioz.

TXIRRINDULARI GAZTEEN TOPAKETA

Ekainaren 4ean goiko frontoian haur eta gazteei zuzenduriko txirrindulari gazteen topaketa antolatu genuen. Hauek bizikletarekin abilezia praktikatzeaz gain, zirkulazio arauak eta segurtasun neurriak ezagutzea izan zen ekimenaren helburua.

BTT IBILALDIA

Irailaren 19an ospatu zen eta, egun hezea eta loitsua izan bazen ere, 117 txirrindularik hartu zuten parte. Luzera ezberdineko bi ibilbide egiteko aukera izan zen: motza 24km-koa eta luzea 54km-koa. Kirolakiek ibilbidearen gogortasuna azpimarratu bazuten ere, hagitz gustora egin zutela adierazi zuten.

BERTZEAK

ELIKADURA ETA KIROLARI BURUZKO TAILERRA

Xabier Etxenikek martxoaren 21ean kirolean errendimendu hobea izateko elikadura motari buruzko solasaldia eta tailer praktikoa eskaini zuen. Honen inguruan interesa zuten 30 pertsona inguru elkartu ziren tailerrean parte hartzeko.

KIROL ANITZEKO KANPUSA

Abuztuan zehar multikirola kanpusa antolatu genuen. Aste beteko bi txanda izan ziren eta bertan 36 haurrek hainbat kirola praktikatuz parte hartu zuten.

ELKARTEKO EKIPAMENDUA EDUKITZEA INTERESATZEN ZAIZU?

NEW Iritsi da Beti Gazte-ren "**merchandising**" berria!

Botilak, boligrafoak, guardasolak, maillotak...

Hurbildu zaitez ikustera... **ortzegunetan 18:00etatik 19:30era**, elkarteak Mastegi futbol-zelai aurrean duen lokalean.

BETI GAZTEKO KULTURA TALDEAK 2021-2022 KURTSOA MARTXAN!

LERRO DANTZA TALDEA

Irailean ospatutako Herriko Dantza Taldeen Topaketan, zahar-etxe parean, dantza ederrak erakutsi zizkiguten. A ze estiloa!

IRAKURKETA TALDEA

Maiatzaren 14ean Carlos Aurensanz idazlearen "La puerta pintada" liburuaren aurkezpena antolatu zuen taldeak. Hitzaldia ematera zetorren idazleari herriko bisita gidatua egin zitzaion, taldeko batzuen konpainian.

BETI JAUZI MUXIKO DANTZA TALDEA

Bortzirietako muxiko topaketetan parte hartzen du taldeak. Maiatzean Lesakan antolatu zen topaketa, inguruko dantzariak bilduz. Irailean berriz, Herriko Dantza Taldeen Topaketa itxi zuten Plaza Zaharrean dantzatuz.

BG ARGAZKILARI TALDE BERRIA!

Maiatzean egindako argazkilaritza ikastaroaren ondotik, berriz ere martxan jarri da Beti Gazteko argazkilari taldea. Elkarrei laguntzea eta argazkilaritzaren inguruan ikastea da helburua. Horretarako, leku ezberdinetara irteerak antolatuko dira hainbat argazki teknika landuz. Elkarteak antolatzen dituen ekitaldien irudiak jasotzea ere izanen da taldearen afera.

ARBOLAREN EGUNA

Otsailean Arbolaren Eguna landu eta ospatu genuen herriko ikastetxeen laguntzaz. 100 haur eta guraso inguru bildu ziren bertze hainbertze arbola landatzen: bertako gaztainondoa, pagoa, haritza eta lizarra.

EZAGUTU DEZAGUN LESAKA

Apirilean zehar Lesakari buruzko 30 galdera erantzun nahian buru belarri ibili ziren herriko haurrak. Lehiaketan parte hartu, saritxoak irabazi eta bidenabar, kontu pila bat ikasiz. Hementxe saridunen argazkia:

MAHAI JOKO TXAPELKETA

Maiatza eta ekaineko asteburu banatan mahai joko txapelketa ospatu genuen. Mus, Pintxazo eta Xake jokoen lehiaketa izan zen. Hementxe saridunen argazkia:

ARGAZKI RALLYA

Ekaineko lehendabiziko asteburuan, Beti Gazteren Astearekin batera, Argazki Rallya ospatu genuen. Nafarroako zein Gipuzkoako argazkilari afizionatu koadrila batek parte hartu zuen. Hementxe aste batzuk beranduago ospatu zen sari banaketa ekitaldian ateratako irabazleen argazkia:

MENDIAN HIL, HIRIAN HIL

Ekainaren 20ean hildako mendizaleen eta lutuaren inguruko dokumentalaren emisioa eman zen Harriondoako Txokobiko aretoan. Bertan, familia lesakarra duen Iñaki Peña zuzendaria izan genuen; baita protagonistetako bat ere: Felipe Uriarte, Xabier Erroren bidelaguna.

MARGO AZKARREKO LEHIAKETA

Ekainaren 27an "Elias Garralda" Margo Azkarreko Lehiaketa ospatu zen. Gure herrira Nafarroa zein Gipuzkoako herrietatik margolari sail bat hurbildu zen eta lesakarren bat ere animatu zen lehiaketan parte hartzera. Hementxe saridunen eta obra irabazleen argazkia:

ERREKAREN EGUNA

Abuztuaren 21ean Errekaren Eguna ospatu zen eta goizean zehar Onin errekako Bordieneatik hasita Eskol Ttikirainoko tartea txukun utzi zuten herriko haur eta gurasoek. Aupa zuek!

BETI GAZTE KANTARI TALDEA

COVID egoera dela eta, aurten ez dute emanaldirik egin eta entseguak ere bertan behera utziak izan dituzte. Hala ere, urrian berriz martxan jarriko dira eta hamabortz egunetik behin elkartuko dira Harriondoan entseatzeko.

JOSE LUIS SUNSUNDEGUI, LEHENDAKARI OHIA

AZKENEKO ZORTZI URTEETAN LEHENDAKARIA IZAN DEN JOSE LUIS SUNSUNDEGUIREKIN BILDU GARA, ZUZENDARITZA UZTEAK EMAN DION PERSPEKTIBA BERRIAREKIN, ELKARTEARI BURUZ DUEN IKUSPUNTUA JASOTZEKO.

Beti Gazte: Nola aurkeztuko zinateke ezagutzen ez zaituen norbaiti?

Jose Luis: Bertzerik gabe, Jose Luis.

BG: Zenbat denbora eskaini diozu gidaripean izan duzun klubari? Zein izan da zure ibilbidea?

JL: Uste baino aunitzez gehiago. Isabeli galdetu beharko genioke, familiarekin egoteari utzi diodan ordu aunitz izan baitira. Nire ibilbidea Beti Gazten 1985ean hasi zen, batzuk zuzendaritzan sartu ginen, krisian zegoen elkartea biziberritzeko asmoz. 14 urte eman nituen zuzendaritza batzorde ezberdinetan. 2012. urtean lehendakaritzarako aukera ninduten. 2020ko urrian uztea erabaki nuen, urte aunitz neramatzan eta elkartea berritu beharra zegoela uste nuen.

BG: Nola sentitzen zara orain, Beti Gazteko presidente izatea bezalako kargu "garrantzitsu" batetik libratzean, horrek dakarren denbora libre guztiarekin?

JL: Nire lehendakari urteetan, elkarteak merezi duen lekura eramaten saiatu naiz Beti Gazte. Harreman bikaina izan duen zuzendaritza-taldea izan dugu, eta arrakastak eta porrotak partekatu ditut haiekin. Denbora libreari dagokionez, orain ere elkartearekin konprometitua nago eta uste baino denbora libre guttiago daukat.

BG: Klubarekin parte hartzen jarraitzen duzu? Nola?

JL: Klubari laguntzen jarraitzea da nire asmoa, Batzordeak egoki deritzon bitartean eta agintzen didaten lanerako baliagarri sentitzen naizen guztietan.

BG: Zein da Beti Gazteren lehendakari gisa gordetzen duzun oroitzapenik onena?

JL: Niretzat garrantzitsuena Zuzendaritza Batzordeko kide guztiok izan dugun familia-giroa izan da. Ekitaldi gisa, geratu zaidan oroitzapenik onena 75. urteurrenaren ospakizuna izan zen. Urte osoan zehar ospatu ziren ekitaldi guztiak bereziak izan ziren, Ezpatadantzarien eguna goraipatuz, Onin erreka ertzean dantzatu zuten 7 talde haiekin oroitzen naiz.

BG: Baduzu kontatzeko moduko anekdota xelebreren bat?

JL: Egia erran, aunitz egonen dira, baina une honetan ez datorkit bat bera ere, adinaren kontua izanen da kar-kar-kar!

BG: Nola ikusten duzu zuzendaritza batzorde berria?

JL: Hagitz talde prestatua da, gauzak ongi egiteko gogoa duena. Komunikazioan eta sare sozialetan eguneratuak daude gainera, gu boligrafo eta paperekoak ginen.

BG: Zein izan da agintari berriei utzi diezun ondarerik handiena?

JL: Nik ez diet utzi ondarerik, hartu ditugun erabaki guztiak Batzordeko gainerako kideekin partekatuak izan dira. Uste dut elkartea une honetan osasun-egoera onean dagoela.

BG: Zer aholku emanen zenieke?

JL: Inplikatuko diren kolaboratzaileak bilatzeko, egiten den lana hagitz handia delako eta laguntzarik gabe nekagarria izan daitekeelako.

BG: Zerbait gehiago gehitzeko…

JL: Deus ere ez. Eskerrik asko elkarrizketagatik eta munduko zorte guztia opa dizuet BETI GAZTE klub bikain honen kudeaketan.

AUPA BETIGAZTE!

HURRENGO EKITALDIAK

BETI GAZTE - ALDIZKARIA IRAILA 21'

Urriaren 1ean hasiko irekiko da argazkiak bidaltzeko epea.

Urtea bukatu aintzinetik egitea aurreikusia dago.

Urriaren 18an zabalduko da deialdia ikastetxeen bidez.

Abenduan zehar irteera hauek antolatuko dira: Elutxara, Aiako Harrira eta Mendaurrera

LAGUNTZAILEAK

PUNXAS

BERA KATEA BIKE

IDIAZABAL Otxunea

ArcelorMittal

TRANSTXAKAIN

larreta
IGELTSU PROIEKTATUA · PLADUR LANAK
Bidesoa kalea 36 • 31780 Bera - Nafarroa
larretaigeltsua@gmail.com
Gorka Arnotxea 627.225.514 Juanim Soralea 637.921.299

IZARRA OKINDEGIA

PATO DE NAVARRA MARTIKO

BERA Helmuga
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
VENTA Y REPARACIÓN DE BICIS

UBIRIA
ESKABAZIOAK - T. 619 71 63 22

LESAKAKO ZIERBITZUEN ELKARTEA

ETXARTE Frutak
659 039 918

TALLERES BERRIZAUN TAILERRAK
948 637 460
GASOLINERA GASOLINDEGIA LESAKA

Aldizkariko argazkiak: Txomin Rivera, Fidel Ordoki, Olaia Otxoteko, Erran.eus, Jose Luis Sunsundegui, Xagu, Jon Martinez, Amaia Telletxea eta hainbat laguntzaile.

AKA J. E. GAZTE

1940. urtetik
Lesakako Kirol eta Kultur Elkartea

WWW.BETIGAZTE.NET @BETIGAZTELESAKA @BETIGAZTELESAKA 696 80 98 86